

## SARRERA

Gipuzkoako hondakinen gestioa aldaketa garaian dago. Gaur egun arte jarraitu dugun eredua bideraezin bilakatu zaigu eta horren aurrean, egoera honetara nola iritsi garen aztertu eta herritar bezala kontu honetan dugun arduraz jabetzeko garaia heldu da.

Arazoa, guztiok sortzen dugun gehiegizko zaborra da; hondakin desberdinak nahasita botata sortzen dugu zabor hori. Behin nahasita zabortegetan pilatu edo errauskailuetan erre besterik ezin da egin.

Baina zorionez gure esku dago egoera hau aldatzea!

Herritarrok hondakinen inguruan dugun jokabidea aldatuz erabat murriztu dezakegu sortzen dugun zabor kopurua; hondakinak bereizita sailkatuz, hauen birziklapena ahalbidetzen dugu, herri garbi eta jasangarriago bat eraikiz.

Zure esku dago egungo egoera aldatzea!

*Alperrik du gizakiak inguruan gertatzen denaz kezaketa, egin dezakeen gauza onena bere hobetzen saiatzea da.*

Tomas Carlyle (1795-1881)

## ALDAKETA

**Azpeitia gaur egun:**

**%73 zaborra**



**%27 birziklatu**

**Lortuko duguna:**

**%20 zaborra**



**%80 birziklatu**

## HITZALDIAK / CHARLAS

### EUSKERA

**APIRILAK 24, ASTEARTEA**

Martes 24 de abril

21:00 Betharram

### HITZALDIA

Zero Zabor estrategia eta atez ateko hondakinen bilketa sistema

**HIZLARIAK:** Leire Etxaniz, Urola-erdiko mankomunitateko lehendakaria eta Patxi Juaristi, Azpeitia Zero Zaborreko kidea

### CASTELLANO

**APIRILAK 26, OSTEAGUNA**

Jueves 26 de abril

21:00 Betharram

### CHARLA:

Estrategia cero residuos y el sistema de recogida puerta a puerta

**PONENTES:** Leire Etxaniz, presidenta de la mancomunidad de Urola-medio y Patxi Juaristi, miembro de Azpeitia Zero Zabor



**Birziklatutako paperez egina**



**Edukiontzi urdinera bota**

### Zer da hondakina?

Erabili ondoren, daukanarentzat erabilgarria izateari utzi dion produktua da.

### Zer da zaborra?

Inolako baliorik ez daukaten gauzek osatzen dute. Ohikoa da zaborra hondakin atalak nahasterakoan sortzea. Hondakinak nahasteak berreskurazekin egiten ditu materialak. Zaborra ezin da erabili produktu berriak ekoizteko eta arazoak sortzen ditu.

### Zer egin daiteke zaborrarekin?

Gaur egun zaborra pilatu (zabortegetan) edo erre (errauskailuetan) egiten da. Zabor hau gehienbat berrerabili edo birziklatu daitezkeen materialez dago osatua. Behin nahasita ia ezinezkoa da material hauek aprobetxatzea.

### Zein dira jokabide hauen ondorioak?

Birziklatu edo berrerabili daitezkeen produktuak zabor gisa botata hauek pilatu edo erretzean ekidin daitezkeen kutsadura sortzen da eta produktu hauen ordezkioak sortzeko lehengai berriak erabili behar dira naturaren ustiapena areagotuz; funtsean, bereizketa egoki bat ez egitea kutsakorra da eta kutsadura hori denok pairatu behar dugu.

### Zein da Zero Zabor Egitasmoa?

Materialen erabilera murriztuz, produktu berrerabilgarriak hobetsiz eta ahalik eta hondakin gehien birziklatuz materialen erabilera zirkularra eratzea da, zabor gisa botako duguna minimizatuz.

### Nola gutxitu daiteke sortzen dugun zabor kopurua?

Herritar gisa kontsumo arduratsu bat eginez eta sortzen ditugun hondakinak egoki sailkatuz murriztu dezakegu sortzen dugun zaborra.

### Zein da egungo Azpeitiko egoera?

Azpeitian sortzen ditugun hondakinen %70tik gora zaborteaira botatzen ditugu; Pasa den urtean 4.631.281 kg zabor bota genituen Lapatxera.

### Zer egin dezakegu egoera aldatzeko?

Hondakinak egoki sailkatu behar ditugu, horretarako beharrezko sistemak ezarri, honela material hauek birziklatzeko aukera sortzen baitugu.

### Zer da atez-ateko bilketa sistema?

Hondakin birziklagarri guztiak gaika biltzen diren sistema da. Nahasian birzikla ezin diren hondakinak bakarrik jasotzen dira.

### Zergaitik atez-atekoa?

Momentuz materialak sailkatuta jasotzeko sistema onena da; gaur egun %30 inguru birziklatzen dugu eta atez-ateko sistemarekin %80tik gorako emaitza lortu dezakegu.

### Garestiago al da?

Bilketa garestiagoa den arren, egoki bereizitako materialaren gestioa merkeagoa da; ondorioz sistema osotasunez aztertuz egungo sistemaren pareko kostua du. Gainera bilketa gauzatzeko egun baino langile gehiago behar denez lanpostuak sortuko lituzke.

# Hobetu daiteke

